


# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Beste enpresa batzuekin elkarteak eta harremanak egingo ditugu, horrela baliabideak eskuratzeko eta negozioa optimizatzeko




- Lehenik eta behin, kapsulak egiten dituen enpresa bat kontratatuko dugu.
- Aldagelak egingo ditugunez, orduan, dutzak eta komunak instalatzeko enpresa bat kontratatu beharko dugu.
- Dena askotan garbitu beharko dugunez, garbiketa enpresa bat kontratatuko dugu hango mantak eta kapsulak garbitzeko.



\*Enpresa hau aireportuak kontratatzen duena izango da.



- Makina saltzailearen zerbitzua ere eskainiko dugu, behar duten emakumeek higiene-produktuak eskura ditzaten, hala nola konpresak, tanpoiak edo produktu orokorragoak, hala nola hortzetako eskuilak edo hortzetako pasta.



- Orduan, produktu horiekin makina banatzaileak aldatzen dituen enpresa batekin egingo dugu lan.



# Aliantzak

Lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak erabiliko ditugu. Airelineekin bat egitea pentsatu dugu, gure berri emateko. Billeteak erostean bidaia luzea egiteko, gure kapsuletako bat alokatzeko aukera egongo da.



Airelineekin batera alokatzen bada kapsula %5eko deskontu bat egongo da eta gau osoa kapsuletan pasatzen baduzu, airoportuko edozein tabernatan gosaltzeko deskontu kopoi bat lortuko duzu.

Aliantza bat sortuko dugu xaboi ekologikoko enpresa batekin haiek guri prezioa jaisteko eta gure bezeroek gehiegi kontaminatu behart ez izateko.

